

A2.2 MAILA

IRAKURMENAREN LANKETA

Kosmetikoak, gure lagun minak.

Edertasuna eta garbiketa dira kosmetikaren oinarria. Merkatu zabala da, irabazi handiak izaten ditu eta hazten ari da.

Jendeari bi produktu kosmetiko aipatzeko eskatzen badiogu, gehienek maquillaje-produktuak eta lurrinak esango dituzte. Oso gutxik aukeratuko dituzte egunero-egunero erabiltzen ditugun xaboiak, hortzetako pasta, desodorantea eta xanpua. Baina horiek ere kosmetikoak dira. Gero eta gehiago kontsumitzen ditugu, zaintzea gustatzen zaigulako.

Urtean 6.500 milioi euro gastatzen ditugu kosmetikan. Produktu kosmetikoen kontsumoa % 2 handitzen ari da urte batetik bestera. Eta, horien barruan, osagai naturalak dituzten produktuen kontsumoa ere gorantz doa, % 20 gutxi gorabehera, jendeari axola zaiolako, adibidez, aurpegiko krema oso garbia izatea.

Miren Eskizabelek urte asko daramatza makillajearen munduan, zineman, telebistan, eta edertasun-zentroetan. Berak esan digu arruntenak hidratazio-kremak direla, “uda amaitzen denean, larruazala oso lehorra izaten dugulako”. Gainera, zimurak kentzeko tratamenduak ere jende askok eskatzen dituela azaldu du. Bere ustez, 35-40 urte betetzen ditugunean hasten gara kezkatzen horrelako kontuekin.

Emakumeek gero eta gehiago kontsumitzen dituzte produktu kosmetikoak, baina gizonak ere hasi dira mundo horretan sartzen; “krema hidratatzaileak erosten dituzte batez ere, eta manikura eskatzen ere hasi dira”, zehaztu du Mirenek; baina gehitu egin du portzentajea oraindik oso gizon gutxik kontsumitzen dituztela era honetako produktuak, “batez ere Euskal Herrian”.

Makillajea, berriz, asko aldatu dela dio: “lehen, astunagoa zen, begietako itzala distiratsuagoa izaten zen; baina, orain, itzalak finagoak dira eta oso kolore naturalak lortu dituzte. Makillajea “oso fina bada, politagoa izango da”, erantsi du.

Askotan moda-aldizkariekin joaten zaizkio bezeroak Mireni, ikusi dituzten maquillaje-ereduak egiteko. “Egidazu hau bezalakoa; asko gustatzen zait”. Batez ere egun berezietarako behar izaten dituzte horrelako lanak: ezkontzak, festak, ospakizunak... Arrazoia oso garbi dauka gure makillatzaileak: “euskaldunak oso sibiratik gara, bai janzkeran, bai orrazkeran eta bai makillajearen ere”.

A2.2 MAILA

IRAKURMENAREN ULERMENA

EGITEKOA: Testua irakurri ondoren, erantzun beheko galderi.

1. Gaur egun kosmetikaren industria gorantz doa, emakumeek eta gizonek gehiago kontsumitzen dutelako.
 - Egia
 - Gezurra
2. Gizonek emakumeek baino kosmetiko gehiago kontsumitzen dituzte gure gizartean.
 - Egia
 - Gezurra
3. Zentro kosmetiko batera joaten direnean, bezeroek beti daukate oso garbi zer nahi duten.
 - Egia
 - Gezurra
4. Erabiltzen den makillajea finagoa da orain iraganean baino.
 - Egia
 - Gezurra
5. Makillajea fina bada, dotoreagoa da, Miren Ezkisabel makollatzaile profesionalaren ustez.
 - Egia
 - Gezurra
6. Gizonak ere kosmetikaren kezkatzen hasi dira eta hidratazio-kremak eskatzen dituzte batez ere.
 - Egia
 - Gezurra
7. Lurrinak produktu kosmetikoak dira, baina xaboiak eta xanpuak ez.
 - Egia
 - Gezurra

8. Euskal Herrian gizonezkoak asko makillatzen dira, hemendik kanpo baino gehiago.
 - Egia
 - Gezurra

9. Uda oso ona da larruazalarentzat. Urte-sasoi horretan hidratatuta edukitzen dugu
 - Egia
 - Gezurra

10. Kosmetikoen kontsumoa asko ari da handitzen; baina kosmetiko naturalen kontsumoak ez du gorantz egiten
 - Egia
 - Gezurra

11. 35-40 urte eduki arte, ez gara kezkatzen gure larruazalaren osasunarekin
 - Egia
 - Gezurra

A2.2 MAILA

IRAKURMENAREN ERANTZUNAK

1. Gezurra
2. Gezurra
3. Gezurra
4. Egia
5. Egia
6. Egia
7. Egia
8. Gezurra
9. Gezurra
10. Gezurra
11. Egia